



2. HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA AZTERKETA IDATZIA

1. ABIZENA _____

2. ABIZENA _____

IZENA _____

NORTASUN-AGIRIA _____

AZTERKETA -EGUNA _____

AZTERKETA -TOKIA _____



ARGIBIDEAK

- Azterketa idatziak bi ariketa ditu: irakurmenekoa eta idazmenekoa. Bi ariketa hauek egiteko **ordubete eta 40 minutu** izango dituzu.
- Irakur itzazu ariketa bakoitzaren hasieran datozen argibideak.
- Ariketak boligrafoz egin behar dira. Saia zaitetz letra txukuna egiten.



1. IRAKURMENA

Ariketa-mota: CLOZE-TESTA

Nola egin:

- Ondoren, 50 hutsuneko testu bat daukazu. Testuko zenbaki bakoitzak hitz bat kendu dela adierazten du.
 - Aukeratu erantzun egokiena aukeren orrian eta markatu **erantzun-orrian**.
 - Ariketa egiten hasi aurretik, testua arretaz irakurtzea gomendatzen dizugu
- Ariketa hau gainditzeko, 30 egin behar dituzu ondo.

DOLARRAK, ESTERILIZATZEAREN TRUKE

Mendekotasunak arazo larriak sortzen dizkie drogazaleei. Utzi nahi eta ezinak min handia ematen die gaixoei eta baita haien ingurukoei ere. Mendekotasunak zuzen-zuzenean eragiten die, esaterako, haurrei. Bada, ordea, haurren __1__ hori alde batera uzteko bidea __2__ duenik ere. Barbara Harris estatubatuarrak uste du mendekotasun-arazoak dituztenek haurrik ez __3__ dela onena, eta horregatik halako arazoak __4__ esterilizatzeko *Project Prevention* (Prebentziorako Proiektua) klinika __5__ zuen, orain bost urte, Ameriketako Estatu Batuetan.

Harrisek 200 dolar inguru __6__ dizkie klinikara esterilizatzera joaten diren drogazale eta alkoholikoei. «Nire senarrak eta __7__ bikote drogazale baten zortzi seme-alabetatik __8__ adoptatu genituen. Gaur egun, 650.000 haurrek __9__ drogazaleak dituzte. Zerbait egin beharra dago __10__ hori gutxitzeko. Horregatik hasi nintzen lan honetan», __11__ du Harrisek.

Orain arte, 1.070 pertsona inguru izan dira __12__ klinikan. Bere ustez, hasieran klinikaren __13__ eztabaidak izan baziren ere, «pixkanaka jendeak onartu __14__ du horrelako zerbaiten beharra». Klinikako __15__ iritziz, gizarte-langile ugarik parte hartzen du __16__, eta horiek ematen diete klinikako telefonoa mendekotasun-arazoak dituztenei.

mendekotasun- dependencia



«Kartzela-esparrukoak, gizarte-langileak, drogak __17__ tratamenduetako langileak eta metadona erabiltzen duten __18__ arduradunak izaten dira, besteak beste, gure programen __19__ ematen dutenak. Ondoren, mendekotasun-arazoak dituztenen __20__ dago guregana jotzea edo ez. Guk ez dugu __21__ behartzen», nabarmendu zuen Harrisek.

Harrisek ezin zuen __22__ emakume drogazaleek haurrak izatea: "Nola liteke __23__ emakume bat ospitalera joan, haurra izan eta lasai-lasai etxera __24__ uztea?". Behin telebistako programa batean galdetu zion haurdun zegoen drogazale bati zer egin __25__ bera bezalako drogazaleek haurrik ez izateko, eta hark erantzun zion 20 dolar emateko. Orduan erabaki zuen ez 20 dolar __26__, bai eta 200 ere!

«Haurrak salbatzeko» egiten duela dio Harrisek. __27__, denak ez dira iritzi berekoak. Haurdun Dauden Emakumeen Aldeko Abokatuen __28__ Nazionalaren (NAPW) arabera, «emakume drogazale askok beste edozeinek bezain ondo __29__ dituzte haurrak».

«Beste __30__ ez duten pertsonak joaten dira Barbara Harrisen klinikara. Kanean bizi den norbaitentzat 180 euroko saria beste ezer baino hobea da. Bere __31__ saltzeko prest daude zerbait erosi ahal izateko. __32__ jokatzeko zuten naziek ere euren garaian, beraien __33__ ez zuten guztiak baztertzen zituzten», adierazi zuen Wyndi Anderson NAPWeko kideak.

Project Prevention erakundeko arduradunaren arabera, __34__, klinikara jotzen dutenak beren __35__ joaten dira. «__36__ mediko bat egiteko eskatzen diegu __37__ etortzen direnei. Bestalde, tronpen loturaz __38__, beste hainbat aukera ere __39__ dizkiegu. Adibidez, Depo Provera izeneko injekzioa, urtean 8 bat aldiz hartu behar __40__. Injekzio hori hartzen dutenei 200 dolar ematen __41__ urtean», esan zuen Harrisek.

Orain arte, klinika horretara jo duten __42__ emakumezkoak izan dira, nahiz eta __43__ esterilizazio-teknikak ere erabiltzen dituzten. Proiektuaren aurka daudenek, __44__, behin baino gehiagotan leporatu diote Harris beltzei zuzendutako kanpaina bat __45__ nahi izana. Baina klinika horretako langileek __46__ datuen arabera, esterilizatzaera joaten direnetatik gehienak __47__ dira.

NAPWeko kideek, berriz, 1930eko hamarkadan Ameriketako Estatu Batuetan egin ziren hainbat programarekin __48__ dute Harris. Programa horiek gizakia genetikoki hobetzeko __49__ ziren. Juduak, ijitoak, arazo mentalak zituztenak eta homosexualak esterilizatzea zen programa horien helburu nagusia.

Bere kontra esandakoak gogora ekarrita, «kritikatu aurretik, pasa __50__ ordu batzuk jende horren hurrekin», adierazi zuen Harrisek.

Gara egunkaria, 2003-09-09
Egokitua



1.1. AUKEREN ORRIA

- | | | | |
|---|--|--|---|
| 1. a) zorion
b) zoramen
c) zorigaitz
d) zorne | 2. a) baztertu
b) ahaztu
c) eragotzi
d) proposatu | 3. a) izatea
b) izan
c) izaten
d) izateko | 4. a) dituztenak
b) dituztenek
c) dituztenei
d) dituztenok |
| 5. a) erakutsi
b) saritu
c) sortu
d) jaio | 6. a) ordaintzen
b) eskatzen
c) leporatzen
d) trukutzen | 7. a) guk
b) biak
c) biek
d) biok | 8. a) laurak
b) lau
c) lauei
d) lauk |
| 9. a) aita
b) alaba
c) aitak
d) guraso | 10. a) ahalegin
b) kopuru
c) bilduma
d) neurri | 11. a) uste
b) askatu
c) adierazi
d) ukatu | 12. a) Harrisen
b) Harrisaren
c) Harrisko
d) Harristik |
| 13. a) arloko
b) inguruko
c) buruzko
d) gainerako | 14. a) omen
b) ote
c) egin
d) ezin | 15. a) lehendakarien
b) etsaien
c) agintedunen
d) arduradunen | 16. a) eremuan
b) proiektuan
c) egutegian
d) egunkarian |
| 17. a) hartzeko
b) probatzeko
c) debekatzeko
d) uzteko | 18. a) enpresetako
b) kliniketako
c) lantegietako
d) txokoetako | 19. a) arrazoi
b) iragarri
c) berri
d) iragarki | 20. a) esku
b) lepo
c) buru
d) bizkar |
| 21. a) inor ez
b) nor edo nor
c) norbait
d) inor | 22. a) kanporatu
b) ulertu
c) asmatu
d) jakin | 23. a) antzeko
b) aparteko
c) halako
d) hango | 24. a) joatera
b) joaten
c) joan
d) joanda |



25. a) zitekeen
b) litzakeen
c) zitezkeen
d) zitzakeen
26. a) eman
b) emateko
c) ematea
d) ematen
27. a) Batez ere
b) Horregatik
c) Bestela
d) Hala ere
28. a) Hitzaldi
b) Erakunde
c) Multzto
d) Tropel
29. a) sendatzen
b) baztertzen
c) zaintzen
d) astintzen
30. a) aukerarik
b) joerarik
c) drogarik
d) lanik
31. a) eskua
b) altxorra
c) burua
d) gogoa
32. a) Antzera
b) Desberdin
c) Erdipurdi
d) Aske
33. a) izaerarik
b) bururik
c) asmorik
d) antzik
34. a) gainera
b) ordea
c) era berean
d) hortaz
35. a) erruz
b) asmoz
c) kabuz
d) bidez
36. a) Itzulpen
b) Ikerketa
c) Gogoeta
d) A zterketa
37. a) guregandik
b) guregatik
c) guregan
d) guregana
38. a) geroztik
b) gero
c) gehi
d) gain
39. a) eskaintzen
b) oztopatzen
c) mugatzen
d) agintzen
40. a) dela
b) direna
c) dena
d) denak
41. a) dizkigute
b) dizkiote
c) dizkiegu
d) dizkigu
42. a) gehiengoak
b) gehienak
c) gutxienak
d) bakarrik
43. a) gizonezkoentzako
b) gizonezkoenganako
c) gizonekiko
d) gizonezkoetarako
44. a) beraz
b) bestalde
c) hori dela eta
d) horretarako
45. a) bultzatu
b) antzeman
c) ezkutatu
d) eragotzi
46. a) landutako
b) erraztutako
c) emandako
d) saldutako
47. a) Kaukasorenak
b) kaukasiarrak
c) kaukasozkoak
d) Kaukasotik
48. a) konparatu
b) nazkatu
c) tratatu
d) zorabiatu
49. a) haziak
b) transplanteak
c) irtenbideak
d) metodoak
50. a) dezaketela
b) ditzatela
c) daitezela
d) dezala



1.2. ZUZENKETA-ORRIA

Irakurgai: "DOLARRAK, ESTERILIZATZEAREN TRUKE"

Ariketa-mota: CLOZE-TESTA

Baremoa: Ariketa hau gainditzeko, 30 egin behar dira ondo.

ERANTZUN ZUZENAK

1.	C	2.	D	3.	A	4.	A
5.	C	6.	A	7.	D	8.	B
9.	D	10.	B	11.	C	12.	A

13.	B	14.	C	15.	D	16.	B
17.	D	18.	B	19.	C	20.	A
21.	D	22.	B	23.	C	24.	B

25.	A	26.	C	27.	D	28.	B
29.	C	30.	A	31.	C	32.	A
33.	D	34.	B	35.	C	36.	D

37.	D	38.	D	39.	A	40.	C
41.	C	42.	B	43.	A	44.	B
45.	A	46.	C	47.	B	48.	A
49.	D	50.	B				



2. IDAZMENA

Egitekoa: ESKUTITZA

Oharrak:

- Gutxienez 35 lerro idatzi behar dituzu.
- Zaindu eskutitzaren egokitasuna, ulergarritasuna, zuzentasuna eta aberastasuna.
- Saiatu letra garbia eta txukuna egiten. Boligrafoz idatzi behar duzu.

GAIA: Elkarte batek narkogela bat jartzeko asmoa du zure auzoan; hain zuzen ere, Udalak utzi dion lokal batean, eskola publikoaren aldameneko etxean.

Duela urtebete, beste lokal bat eskaini zion Udalak, beste auzo batean, baina hango bizilagunek protesta gogorak egin ondoren, Udalak atzera egin zuen.

Idatzi alkateari zure auzokideen izenean. Adieraz iezaiozu zuen iritzia eta eman arrazoiak.



5

10

15

20



25

30

35

40



45

50

55

60